FISKALITATEARI BURUZKO ELA-REN TXOSTENA. ELA sindikatua kritiko agertu zen atzo Hego Euskal Herriko fiskalitatearekin. Kontzertu Ekonomikoak eta Hitzarmen Ekonomikoak gardentasun falta izugarria dutela azpimarratu zuen Jose Elorrietak.

ELA: «Erreforma fiskala enpresarien aldekoa da, eta ez du kenduko iruzurra»

Foru ogasunek 1,338 bilioi pezeta bildu zituzten 2000. urtean, 1999an baino %9,40 gehiago

Leire Montes | **DONOSTIA**

ELAk urtero fiskalitateari buruz egiten duen txostena aurkeztu zuen atzo, eta, 2000ko urte fiskalari dagokion honetan, kritiko azaldu ziren sindikatuko arduradunak. Kritiko, bai datuekin, baita egun egiten den ikuskaritza lanarekin ere.

2000. urtean, Hego Euskal Herriko foru ogasunek 1,338 bilioi pezeta bildu zituzten, aurreko urtean baino %9,40 gehiago. Diru bilketa gehien izan zuen zerga BEZ (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) izan zen, 1999an baino %11,51 gehiago. Atzetik, PFEZ (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga), zerga bereziak eta elkarteen gaineko zerga izan ziren.

Zerga bilketaren bilakaerari dagokionez, txostenak zeharkako zergek hartutako garrantzia adierazi zuen. Izan ere, 1997-2000 bitartean, zeharkako zergak %38,43 igo ziren, eta zerga zuzenak, berriz, %23,74.

Presio fiskalaren igoera ere azpimarratu zuen Julene Gabiolak, ikerketa bulegoko arduradunetariko batek. Aurreko ekitaldiarekin konparatuz gero, zeharkako zergetan izan zen igoera handiena.

PFEZri dagokionez, lanetik datozen errentak oso garrantzitsuak izan ziren Hego Euskal Herrian (%80etik gora, hain zuzen). Bestalde, EAEn BEZ izan zen gehien hazi zen zerga, Barne Produktu Gordinaren (BPG) %0,62ekin. Nafarroan ere zerga bidez lortutako sarreren %33,08 izan zen.

Alde horretatik, Nafarroako Gobernua gogor kritikatu zuten sindikatuko ordezkariek: «Ogasun Sailak ez digu informaziorik eman nahi izan nahi txosten hau egiteko, eta hori onartezina iruditzen zaigu». Baina hori ez zen izan ELAkoek egin zuten kritika bakarra.



Jose Elorrieta, Julene Gabiola eta Mikel Noval, ELAk fiskalitateari buruz eginiko txostena aurkezten.

PFEZren banaketa Hego Euskal Herrian

Aitorturiko batez besteko errenta, 1995-1998



Aitorturiko errenten batez besteko urteko aldaketa, 1995-1998



Errenta ezberdinen pisua PFEZn, 1998



ITURRIA: ELA — J. APEZTEGIA

Iruzurra eta gardentasun falta

Informazioa lortzeko dagoen zailtasun horri gardetasun falta ere gehitzen zaiola adierazi zuen Mikel Novalek, ikerketa bulegoko arduradunak: «Hego Euskal Herriko foru ogasunek gardentasun falta izugarria dute, eta datu garrantzitsuak ezkutatzen dituzte. Era berean, ELAko ordezkari nagusi Jose Elorrietak Hitzarmen Ekonomikoan eta Kontzertu Ekonomikoan demokrazia falta nabarmena zela gaineratu zuen, eta «bai gardentasunean bai progresibitatean sakontzeko» balio behar dutela esan.

Fiskalitatea aurrera ez doala adierazi zuten ELAkoek. Zeharkako zergek beren garrantzia handitu zuten, baina zuzeneko zergek, ordea, ez zuten hainbeste presentziarik izan. Hala, «karga fiskalaren banatzean dauden desberdintasunak» salatu zituen Novalek.

Baina iruzurraren inguruan azaldu ziren benetan kritiko ELAkoek. Txostenaren arabera, lan errentek jarduera enpresarial, profesional zein artistikoek egiten dituzten baino 943.000 pezeta gehiagoko batez besteko sarrerak aitortu zituzten. Novalen esanetan, «iruzurra badago, eta, gainera, gorantz doa; beraz, horren inguruan ez da ezer egin, lanean ari direla esaten diguten arren».

Izan ere, azkeneko urteetan aitortutako lan errentak nabarmen igo egin dira. Jarduera enpresarial, profesional eta artistikoen aitortutako errentek, aldiz, gorakada oso txikia izan dute. Desberdintasun hau gero eta handiagoa da, beraz, urteak pasa ahala. Elorrietak egoera hau «ekonomian dagoen opakotasuna argi uzten duela» adierazi zuen, eta «gorritzeko modukoa» dela salatu zuen.

ESANAK

JOSE ELORRIETA
ELAko idazkari nagusia

«Kontzertu eta itun ekonomikoek demokrazia falta izugarria dute»

«Egoera hau ulertezina da Europan: lotsatzeko datuak daude, baina inor ez da lotsatzen»

MIKEL NOVAL
Ikerketa bulegoko arduraduna

«Ikuskatua ez da %1era iristen: iruzurrari heltzen ez dion erabaki politikoa da»